

Balio proposamena:

Gure enpresa **belkroarekin jorratutako poltsikoen** salmentan du oinarri, non, beste enpresak ez bezala, poltsikoa **nahi duzunean itsastean edo kentzean datza**, eta edonork erosi dezake.

Horrela hurrengo **abantailak** eskaintzen ditugu:


- Gure bezeroei poltsikorik izateko edo ez izateko **askatasuna**==>erosotasuna ziurtatuz.
- Produktuaren **kalitatea** bermatzen dugu==>bezeroaren eskaria asetzeko.
- **Konfiantza** sortzen dugu.

Gainera, **erabilgarritasun berria** dauka:

- Jaketan, praktetan edo **gehitu nahi den lekuetan** belkroaren ilezko zatia duen tira itsasten da. Eta horrela, aipatutako poltsikoak nahi duzunean itsas ditzakezu.
- Poltsiko horrek **2 atal** ditu:

1) **Zati itsaskorra** dena (belkroaren zati biguna, ilearen antzekoa dena).

2) **Poltsikoa** dena. Poltsikoak **kakoak dituen belkroaren zatia izango du josita**.



Irudian islatutakoa praka batzuk dira, baina lehen aipatu dugun moduan **ez dago zertan bakarrik praktetan gehitu behar poltsikoa**. Horrela poltsikorik ez duen jertse batean gehitu dezakezu eta nahi den moduan jarri edo apaindu.

- Poltsikoa dena **birziklatutako oihaletaz osatuta dago**. Modu horretan, **produktuak sortzeko beharrezkoak diren materialak ekoiztu ordez**, ez ditugu sortuko, hau da, **lehenago eginda zeudenak hartu eta erabilera bilatuko diogu**, eta ondorioz, **ez dugu kutsatzen**.

Zergatik erosiko zenuke produktua eta zer eskaintzen digu beste enpresa batek ez diguna?

Beste enpresek, arropen ingurukoak oro har, **poltsiko finkoak dituzten produktuak** saltzen dituzte, horrela hauek mugatuz. Gure produktuak, aldiz, **muga hori ezabatzen du, bezeroak nahi duen lekuan belkro hori kokatuz**.